

Bertzo berriak Madriko frentian Frailiari ostatuko txerriari Bizente Alzo arrak jarriak

— 1 —

Millaz gañera bederatzireun
ogeita emezortsian
bertzo berriak jartzera nua
umore ederbatian
Kristo zerura igo zanetik
oraindano bitartian
olakorikan ez da gertatu
Españiako partian.

— 2 —

Gezurrik ez det batere esango
danak dirade egiak
Madriko frenten egin ditugu
komerri parragarriak
mingañaz ez da errez izango
esplikatzen guztiak
ogei gizonen atzaparretan
bizia utzi du txerriak.

— 3 —

Gerrak baditu rato txar asko
bañan baita ere onak
buruba asko nekatutzendu
soldadu dagon personak
naiera jaten oituta dauden
euskal erriko gizonak
piparra janda ezdu irauten
guk daukagun osasunak.

— 4 —

Agor illaren lendabiziko
eguardiako amabietan
agintari bat topo eginda
jarri giñaden izketan
agindu zigun txerri bat dabil
onoko arbolape ortan
arrapatuta sartu zazute
auzko etxe txiki artan.

— 5 —

Lagun bat eta biok juañ giñan
eskubai txistua emanda
soka lazuan jarri genduan
koraje txarra zeukan-da
arrimatutzen asi giñaden
tos tos itzeginda
arren saltuak eta puzkarrak
pisu aundia etzeukan-da.

— 6 —

Bigarren txandan egin diogu
ogi puska bi botaka
bastante manso preparatuzan
bi belarriak altxata
alde bietati lapatu giñan
alkar ondo enteratuta
justu justuan geldituazan
soka gerrian lotuta.

— 7 —

Animalioi etsegon trankil
bi lapurren eskuetan
begiak argi buruba tente
dardarizua anketan
mutur luzia eta okerra
itaya bezela bueltan
illia berriz metro bat luze
beldargarria benetan.

— 8 —

Bi borreguak artu genduan
ostikoka ta makilka
jabia ere gertuan zegoñ
negarrez eta erreguka
okullu zokon sartu genduan
korrika eta saltoka
bi egunian euki genduan
erdi gosiak marruka.

— 9 —

Zazpi euskaldun animalioi
iltzeko eskojituak
aundiak eta korajetzuak
indarrik guzienekuak
abetatikan bost gipuzkoar
bi dira bizkayakuak
edadia ere txarra ez eta
apetitu onekuak.

— 10 —

Orain daduzkan beste amairun
empleuak esateko
bost artillero eta kabo bat
ziran guardia egiteko
beste lau ziran lastua biltzen
ildakuan erretzeko
bi agintari danok giatzen
apaiza bedeinkatzeko.

— 11 —

Ontara ezkerre pasadizua
garbi nainuke esplikatu
lapurrak ditu ankak ariñak
buruba nekatzendu
egunez danok lo egin genduan
gauberako prepatu
amaikak juak izango ziran
amabiak ere getu.

— 12 —

Allegatu da txerriarentzat
eriotzako ordua
okullu zokon sartu giñaden
eundoko gizon mordua
agintariak esaten zuten
mutillak au-da gustua
estomagoko otzak kenduta
pasa biardiau negua.

— 13 —

Animalioi artu genduan
ogei gizonen erdian
arren saltuak eta orruak
ganbelua zirudian
jende guztia kantari eta
oidurruntsika aidian
teatro oberik ez dute egin
Madriko kapitalian.

— 14 —

Golpe batian eldu diogu
lau lagunek anketatik
bosgarrena zan belarrietan
seigarrenak buztanetik
zazpigarrenak kutxillo aundi bat
sartu zion zinzurretik
bañan muturra sokaz lotuta
kurrinka ez entzuteagatik.

— 15 —

Eriotzako momentua zan
triste ta penagarria
lau aldiz sartu kutxillua ta
iñola ezin ill txerria
milagrorenbat bazala eta
ura zan gure larria
tripa zar onek erakusten
digu istillu gorria.